

MERKATARITZA EZ EGONKORRA, MERKATU TXIKIA ETA BESTELAKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Ordenantza honek merkataritza ez egonkorra Irurtzongo udal mugapean arautzen du, eta ondoko arauetan xedatutakoaren babespean ezarri da: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 122. artikuluan; urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako Entitateen Ondasunei buruzko Erregelamenduaren 93. artikuluan eta hurrengoetan; eta Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 28. artikuluan eta hurrengoetan.

2. artikulua. Merkataritza ez egonkorraren esparruko merkataritza jardueratzat hauek har daitezke:

a) Noizbehinkako merkataritza, salmenta kalez kale egiten denean.

b) Merkatu txikietako merkataritza, aurretik ezarritako leku, egun eta orduetan egiten dena.

II. KAPITULUA

NOIZBEHINKAKO MERKATARITZA

3. artikulua. Noizbehinkako merkataritza aldian behin egiten da, herriko toki zehatz batzuetan eta besta tradizionaletan, betiere Alkatetzak berariaz baimendutako toki eta egunetan.

Espresuki hartzen dira noizbehinkako merkataritzatzat herriko bestetan, ferian edo jendearen etorri handiko lekuetan, egiten diren salmentak.

III. KAPITULUA

MERKATU TXIKIEN JARDUERA

4. artikulua. Merkatu txikitzat hartuko da produktuen salmenta antolatua, jakiena barne, astean behin egiten bada urte osoan, saltokietan antolatuta, betiere Alkatetzak berariazko baimena eman ondoren, hark tokia ere zehaztuko baitu.

5. artikulua. Merkatu txikia jartzea erabakitzerakoan, haren ezaugarriak zehaztuko dira. Hauek gutxienez:

a) Haren kokaleku zehatza, Foruen enparantza izanen baita, eta baimenak noiz arte izanen duen indarra, betiere urtebete baino laburragoa izanik. Beste ospakizun batzuk egun eta toki berean eginez gero edo tokia murrizten bada, bestelako toki bat zehaztuko da.

b) Zein egunetan eginen den, asteartea izanen baita, non ez den jaieguna; hala balitz, astelehenean eginen da. Herriko bestetan ez da merkatu txikirik eginen.

c) Zein ordutan eginen den, goizeko 8:00etatik 15:00etara izanen baita.

d) Gehienez ere zenbat saltoki egonen diren, eta, behar izanez gero, lehenetsuneko irizpideak ezarriko dira, baimena emateko helbidea Irurtzunen daukaten merkatariei.

e) Halako produktu baten araudiak haren salmenta debekatzen badu, ez da hura saltzeko baimenik emanen.

Ikuskatzaitza zerbitzuek ibilgailuari edo arestian zehaztu eskaintzari dagozkion higie arauak betetzen ez dituzten produktuak salgai jartzea debekatuko dute edota, bestenez, dekomisatuko osoki identifikatzea zaila izan edo narriadurak erakusten dituztenak.

Oinarrizko arau gisa, elikagai guztiek beraiendako ezarri osasun araudia beteko dute, eta ontzietan sartu eta etiketatuko dira, dagokien araudiak hala eskatzen duenean.

IV. KAPITULUA

UDAL BAIMENAK

6. artikulua. Indarra duten xedapenek arautuko dute kaleko salmenta, eta Alkatetzak emanen ditu baimenak horretarako.

7. artikulua. 1. Merkatu txikietan saltzeko beharrezkoak diren udal baimenak erdiesteko, ondoko baldintzak bete beharko dira:

a) Eskabidea egin baino lehen, merkataritza eta industria jardueretarako lizentzia fiskalaren epigrafean inskribaturik egotea eta behar den tarifaren ordainketa eguneratua duela frogatzea.

b) Zein Udaletan dauden erroldatuta, haren ziurtagiri bat ordainketa guztiak eginak dioena.

c) Gizarte Segurantzaren bidezko araubidean alta emanda egotea eta kotizazioak ordaindu direla frogatzea.

d) Merkataritzaren xede izanen diren salgai edo produktuen inguruan, araudi tekniko-sanitarioek eta aplikatzekoak diren bertzelako xedapenek eskatu baldintzak beteko dituela ziurtatzea.

e) Elikagaien saltzaileek janari erabiltzaileen txartela edukitzea, betiere horrek indarra edukita.

f) Beharrezko den udal baimena eskatzea. Horretarako datu eta agiri hauek eman beharko dira:

-Izen-deiturak.

-NANaren fotokopia.

-Helbidea

-Saltokiaren neurriak, behar bezala egiaztatuak.

-Baimenduta saldu nahi diren gaiak, zehatz-mehatz.

-Titular beraren saltokian lan egiten duten jendeai buruzko xehetasunak.

2. Udalaren baimenen titularrek karnet neurriko bi argazki ekarri beharko dituzte eta ezarritako tributuak ordaindu, urtarrilaren 1a, apirilaren 1a, uztailearen 1a eta urriaren 1a baino lehen Irurtzongo edozein banketxetan.

8. artikulua. Ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskabideek merkatu txikian saltzen aritzeko udal baimena jaso dezakete.

Ordenantza honetan eskatzen den dokumentazioa aurkezten ez duten eskatzaileei, errekerimendua eginen zaie 10 eguneko epean aurkeztutako dokumentazioa behar bezala aurkez dezaten. Aipatu epea ez betetzeak edo agiri guztiak ez aurkezteak berarekin ekarriko du udal baimenak erdietsi ahal izateko eskabideak ez onartzea eta aurkeztu dokumentazioa artxibatu edo beraien titularrei itzultzea.

9. artikulua. 1. Pertsona bakoitzak salmentarako baimen bakarra eskuratuko du.

2. Baimenak pertsonalak eta besterenduezinak izanen dira, eta gehienez ere urtebeterako indarra izanen dute.

10. artikulua. Baimenaren agiriak honako hau jasoko da: saltokiaren titularraren datu pertsonalak eta argazkia, postuaren zenbakia edo kokalekua, eta zein produktu saltzen ahal diren bertan.

V. KAPITULUA

MERKATU TXIKIKO EREMUAREN ETA SALTOKIEN BALDINTZAK

11. artikulua. Ordenantza honen 5. a) artikuluan ezarritako tokian kokatuko da merkatu txikia: Foruen plaza.

12. artikulua. 1. Ibilgailu egokietan baimendutako salmentan salbu, saltokiak desmuntagarriak izanen dira eta baimendutako azalera hartuko dute soilik.

2. Non ez den salmenta egiten ibilgailutik beretik, gainerakoak Foruen plazatik kanpo egon beharko dira, saltoki paratzen denetik kentzen den arte.

3. Saltoki guztiak beren titularrei emandako baimenak ikusgai izanen dituzte, erosleak kokatzen diren tokitik erraz irakurtzeko maneran.

4. Debekaturik dago saltokietan megafonia eta musika paratzea, eta baita soinu bidezko publizitate mezuak jaulkitzea ere. Musika aparatuek saltzen direnetan megafonia instalazioak jar daitezke eta musika jaulki, betiere, indarra duen araudiak musika sortzen den lekuan baimendutako gehieneko soinu maila gainditzen ez bada.

13. artikulua. 1. Baimenean okupatzeko ezarritako azalera errespetatu beharko da zorrotz; eta mostradorea 8 metro luze eta 3 metro zabal izanen da gehienez ere, kasu bakoitzean dagokion tasa aplikatuta.

2. Saltokien banaketa Alkatetzak eginen du bere kasa, baimenei eta horretarako prestatuko den planoari jarraikiz.

VI. KAPITULUA

OSASUN IKUSKAPENAK, ADMINISTRAZIO KONTROLAK ETA ZAINITZA

14. artikulua. 1. Eremu publikoko saltokietako gai eta produktuen osasun kontrola eta ikuskapenak administrazio zerbitzu eskudunei dagozkie.

2. Elikagaiak saltzeko baimena emanen da merkatu txikia ireki aurretik egin beharreko osasun ikuskapena egin ondoren, gero ere beste ikuskapen batzuk egiten ahal badira ere.

3. Eremu publikoko salmentaren inguruan, antolaketa, administrazio kontrolak eta zainketa udal zerbitzuei dagozkie, betiere Alkatetzaren mendean.

VII. KAPITULUA

SALTZAILEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

15. artikulua. Eremu publikoan saltzeko baimena duten pertsonen eskubideak honako hauek dira:

a) Dagozkien saltokiak okupatzea.

b) Baimendutako gaiak saltzea, onartzen diren egun eta orduetan.

Saltokietan baimendutako pertsonak egonen dira, edo salmentan laguntzen duten ezkontide, seme-alaba, senide zein gurasoak. Besteren konturako langileak aritzea onartzen da saltokietan, baimendutako pertsonaren mendean badaude eta egoera horren berri eman bada baimena eskatzeko dokumentazioan.

c) Jardueran erabilitako materialen hondar eta enbalaje guztiak kendu beharko dituzte saltzaileek, eta horretarako ezin dira erabili herriko edukiontzia.

16. artikulua. Eremu publikoan saltzeko baimena duten pertsonen betebeharrak osasun, merkataritza eta zerga alorrekoak dira.

17. artikulua. Eremu publikoan salmentan aritzeko baimena duten pertsonak osasun arloko betebehar hauek izanen dituzte:

a) Saltokia behar bezain garbi eta ahal bezain txukun edukitzea; batez ere, pisu eta balantzetako platerak. Horretarako, ia pisurik ez duen papera erabili beharko dute, gaiek ez ditzaten pisu edo balantzak ukitu.

- b) Okupatzen duten saltokiko salmahaia ahal bezain garbi edukitzea.
- c) Osasun ikuskatzaileei saltokian edo biltegian dituzten gai guztiak erakustea eta laguntzea.
- d) Bilduki berriak erabiltzea.
- e) Elikagaiak saltzen diren kasuan, indarra duen janari erabiltzaileen karneta izatea.
- f) Garbiketarako udal zerbitzuekin elkarlanean aritzea, saltokia erabat xahu utzita.

18. artikulua. Eremu publikoan salmentan aritzeko baimena duten pertsonen merkataritza arloko betebeharrak izanen dituzte:

- a) Dagozkien saltokiak okupatu eta ezarritako egunean eta orduan irekita edukitzea.
- b) Udal baimenak jendaurrean jartzea, erosleak dauden tokitik erraz irakurtzeko moduan.
- c) Salgai izatea berriaz baimendutako gaiak.
- d) Hala eskatzen zaienean, ordenantza honetan eta legean nahitaezkoztat jotzen diren agiri guztiak udal zerbitzuei erakustea.
- e) Artikuluak ikusteko moduan edukitzea, haien prezio idatziarekin batera.
- f) Pisu eta balantzen kontrastea onartzea.
- g) Baimena zein produktutarako eskatu eta eskuratu den, horietan saltzea eta ez besterik.

19. artikulua. Eremu publikoan salmentan aritzeko baimena duten pertsonen betebeharrak fiskal hauek izanen dituzte:

-Tasak ordaintzea behar den unean.

VIII. KAPITULUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

20. artikulua. Baimenen titularrak erantzule izanen dira, ordenantza honetako xedapenak hausten badituzte haiek beraiek edo saltzen laguntzen duten senide eta kontratupekoek.

21. artikulua. Arau-hausteak honela sailkatu dira:

A) Arau-hauste arinak.

Arau-hauste arintzat hartuko da baimenean ezarritako baldintzetako edozein ez betetzea, baita ordenantza honek zein 13/1989 Foru Legeak ezarritako betekizun eta eginbeharrak ez betetzea, betiere azken horiek larri edo oso larritzat ez badira hartzen.

Hona hemen hutsegite arinak:

1. Zerbitzurik ez ematea baimendutako ordutegian.
2. Udal baimenaren kopia ikusgai ez izatea.
3. Janariak erabiltzeko txartela ez eramatea, hura behar denean.
4. Saltokietan aritzeko baimena duten pertsonak egon beharrea, beste batzuk egotea, aginduzko baimenik ez izateagatik arau-hauste oso larritzat hartzen ez bada.
5. Ordenantza honetan eskatu osasun eta zerga arloko betekizunak ez betetzea.
6. Tokia zikintzea ibilgailuen likido edo fluidoekin.

B) Hona hemen hutsegite larriak:

1. Arau-hauste arinetan berrerortzea.
2. Merkataritzaren xede diren produktuak arautzen dituen araudiak eskatutako baldintzak ez betetzea.
3. Udal agintari edo funtzionarioei beren eginkizunak betetzen ari direnean argibiderik ukatu edo ez ematea, baita argibide okerrak edo gezurrezko dokumentazioa ematea ere.

C) Hona hemen hutsegite oso larriak:

1. Arau-hauste larrietan berrerortzea.
2. Saltzeko baimenik ez izatea.
3. Udal agintariei edo funtzionarioei haien eginkizunak betetzen ari direnean aurre egitea, larderiatzea edo mehatxatzea.

Hutsegite arinetan berrerortzea hutsegite larritzat hartzeko eta hutsegite larrietan berrerortzea oso larritzat, ulertuko da hori gertatzen dela mota bereko bi huts egiten direnean baimenaren indarraldi berean.

22. artikulua. Arau-hauste arinak ohartarazpenez edo 150 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.

Arau-hauste larriak 151 eurotik 600 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira.

Arau-hauste oso larriak 601 eurotik 3.000 euro arteko isunarekin zehatzen ahalko dira eta, zein den kasua, saltzeko baimena aldi baterako kenduko da, edo baliorik gabe utziko.

Salgaiekin badaezpadako neurriak hartuko dira, haiek ikuskatu ondoren, merkaturatzeko behar diren baldintzak betetzen ez dituztela uste denean; konfiskatu egingen dira, agintari eskudunaren ustez osasunarentzat arriskua sortzen badute, edo merkatariak produktua saltzeko baimenik ez badu.

23. artikulua. Zehapen espedienteen prozedura indarra duten xedapenetan ezarritakoari lotuko zaio.

Ofizios edo salaketaren bidez hasiko dira; aldez aurreko espedientea beharrezkoa da, instruktorea eta idazkaria izendatzeko, eta entzunaldiaren beharrezko epea zehaztuko da.

Zehapenak ezartzeko ahalmena Alkatetzarena da.

Udaleko Idazkariak jakinaraziko die interesdunei espedientea ebatzi dela, eta bertan honakoa zehaztuko da: bete ez den araua, ezarritako zehapena, erantzulea eta haren kontra jar daitezkeen errekursoak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehendabizikoa.-Ordenantza honetan jasota geratuagatik ere, Udalak ez du araututako salmenta mota guztiak baimendu beharrik ezinbestean.

Bigarrena.-Ordenantza honek indarra hartu eta ondorio juridikoak izanen ditu ordenantzaren testua osorik Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutakoan eta Estatuko edo Foru Komunitateko Administrazioek toki entitateen egintza edo erabakiak, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerakoak, indargabetzeko duten eskumena erabiltzeko epea iragandakoan.

TARIFEN ERANSKINA

a) Merkatu txikia:

-Hiruhileko tarifa, 4 metro bitarteko saltokietarako: 72,55 euro.

-Hiruhileko tarifa, 4tik 6 metro bitarteko saltokietarako: 113,00 euro.

-Hiruhileko tarifa, 6tik 8 metro bitarteko saltokietarako: 162,00 euro.

-Hiruhileko tarifa, 8tik 10 metro bitarteko saltokietarako: 200,00 euro.

b) Noizbehinkako merkataritza:

-Saltokiak, atrakzioak eta antzekoak, 0,30 euro egunean metro koadro bakoitzeko.

-Txurroak, barrakak eta antzekoak, 0,50 euro egunean metro koadro bakoitzeko.

Iragarkiaren kodea: L1019252